

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Onespena ematea Aiarako udalerriko norbanakoei, familia unitateei, autonomoei, enpresa txikiei eta mikroenpresei koronabirusaren (COVID-19) bilakaerak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko dirulaguntzak emateko premiazko deialdiaren oinarri orokorre

Udal honek, 2020ko maiatzaren 21eko osoko bilkuran, onespena eman dio Aiarako udalerriko norbanakoei, familia unitateei, autonomoei, enpresa txikiei eta mikroenpresei koronabirusaren (COVID-19) bilakaerak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko dirulaguntzak emateko premiazko deialdiaren oinarri orokorre.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 9. artikuluan aurreikusitakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

Eskaerak aurkezteko deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez argitaratuko da.

Aiarako udalerriko norbanakoei, familia unitateei, autonomoei, enpresa txikiei eta mikroenpresei koronabirusaren (COVID-19) bilakaerak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko dirulaguntzak emateko premiazko deialdiaren oinarri orokorrak.

1. ARTIKULUA. OINARRIEN XEDEA

Oinarri orokor hauen xedea da Aiarako udalerriko norbanakoei, familia unitateei, autonomoei, enpresa txikiei eta mikroenpresei koronabirusaren (COVID-19) bilakaerak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko dirulaguntzak emateko deialdia arautzea.

Aiarako Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa den aldetik, eta COVID-19k enpresa txikietan eta mikroenpresetan, autonomoetan eta udalerriko familietan eragindako ondorio ekonomikoen aurrean, berehala arindu eta jarduteko helburuarekin, laguntza deialdi honen bidez nolabaiteko likidezia gehigarria eman nahi die kolektibo horiei, pandemiaren ondorioz bizi dugun egoera ekonomiko larria neurri batean arindu ahal izateko.

Deialdi honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

- Pandemiaren ondorioz dendak ixteagatik izandako diru sarreren murrizketa konpentsatzea.
- Ez-funtsezkoak edo funtsezkoak diren jardueren barruan egoteagatik ondasunen edo zerbitzuen ekoizpena edo gauzapena erabat edo partzialki geldiarazi edo eten behar izateagatik sortutako galera ekonomikoak konpentsatzea.
- Telelana edo urrutiko ikasketak erraztea.
- Bizitza pertsonala eta familia bizitza uztartzeko neurrien kostua konpentsatzea.
- Enplegua galduz gero, likidezia ematea, txikia bada ere.

Ez dira xede izango alarma egoera deklaratu aurreko egoerak, hau da, 2020ko martxoaren 14a baino lehenagokoak.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.500,00 euro izango da pertsona edo erakunde onuradun bakoitzeko.

Deialdi honetako laguntzak emateko, printzipio hauei jarraituko zaie: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauei:

eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

Dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen Udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta aplikatu daitezkeen gainerako legeria osagarria.

2. ARTIKULUA. LAGUNTZA LERROAK.

Dirulaguntzen deialdi honetan laguntza ildo hauek sartzen dira:

1) Enpresa txikiak eta mikroenpresak, egoitza soziala Aiaran dutenak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan jasotako definizioaren arabera.

(Mikroenpresa: Plantillaren batez bestekoa ez iristea 10 langilera, eta aktiboa edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehazten den bezala, ez izatea 2 milioi eurotik gorakoa).

Enpresa txikia: Plantillaren batez bestekoa ez iristea 50 langilera, eta aktiboa edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehazten den bezala, ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa).

Gainera, pandemiaren ondorioz, enpresek edo mikroenpresek % 70 baino gehiagoko murrizketa pairatu behar izan dute beren diru sarreretan 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

2) Aiarako udalerriko langile autonomoen araubide berezian autonomo gisa alta emandako pertsona.

Araubide berezi hori dutenek % 70 baino gehiagoko murrizketa pairatu behar izan dute beren diru sarreretan 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

3) Aiarako udalerrian jendearentzat zabalik dagoen saltoki edo establezimendu baten titularrak, errentan hartutako lokal batean jarduten duena.

Pandemiaren ondorioz, saltokiak edo establezimenduak % 70 baino gehiagoko murrizketa pairatu behar izan du bere diru sarreretan 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

4) Aiarako udalerrian jendearentzat zabalik dagoen saltoki edo establezimendu baten titularrak, bere jabetzako lokal batean jarduten duena.

Pandemiaren ondorioz, saltokiak edo establezimenduak % 70 baino gehiagoko murrizketa pairatu behar izan du bere diru sarreretan 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

5) 14 urtetik beherakoen aita edo ama, edo premia bereziak dituzten eta/edo mendekoak diren pertsonak bere kargu dituenak, baldin eta soldatarik gabeko baimen bat eta parekoen bat hartu behar izan badu, haiek familiaren etxean zaintzeko.

Nolanahi ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen den familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

- Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5
- Familia unitatea hiru kidekoa direnean, LGS bider 2
- Familia unitatea lau kidekoa direnean, LGS bider 2,5
- Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

6) Alarma egoera deklaratzeko duen 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz enplegua galdu izatea (2020ko martxoaren 14a baino geroago).

Nolanahi ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen den familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

- Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5
- Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2
- Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5
- Familia unitatea bost edo kide gehiagoko denean, LGS bider 3

7) Mendekotasun maila duten pertsonak ardurapean izatea, baldin eta PFEZren 98. artikuluan zehaztutako familia unitateak ez baditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

- Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5
- Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2
- Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5
- Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

8) Telelana gaitzeko edo ikasleentzako beharrezko material elektronikoa erosi behar duen pertsona.

PFEZren 98. artikuluan zehaztutako familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

- Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5
- Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2
- Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5
- Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

3. ARTIKULUA. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Laguntza eskatzen dutenek baldintza hauek bete behar dituzte:

• Udal diruzaintzarekin, zerga betebeharrekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatea.

• Onuradun izateko debekuetan ez egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen duenaren arabera.

Enpresa txikiak eta mikroenpresak badira:

• Jarduera ekonomikoa gauzatzen duen erakundearen egoitza soziala Aiarako udalerrian egotea.

• Lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko langileak izatea, kontratu mugagabearekin, 2020ko martxoaren 14tik aurrera.

• Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) kasuan kasuko atalean alta emanda egotea.

• Enpresaren legezko ordezkariaren zinpeko aitorten baten bidez egiaztatzea pandemiaren ondorioz diru sarrerak ehuneko 70 baino gehiago murriztu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Konpromisoa: Lan kontratuko langileen kontratuak gutxienez urtebetez mantentzea.

Autonomoak badira:

• Aiarako udalerriko langile autonomoen araubide berezian alta emanda egotea.

• Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) kasuan kasuko atalean alta emanda egotea.

• Zinpeko aitorten baten bidez egiaztatzea pandemiaren ondorioz diru sarrerak ehuneko 70 baino gehiago murriztu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Konpromisoak: Gutxienez urtebetez egotea jarduera egiten.

Jendearentzat zabalik dauden saltoki edo establezimenduak badira:

• Aiarako udalerrian egotea.

• Jarduera norberaren edo errentan hartutako lokal batean egitea.

• Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) kasuan kasuko atalean alta emanda egotea.

• Zinpeko aitorten baten bidez egiaztatzea pandemiaren ondorioz diru sarrerak ehuneko 70 baino gehiago murriztu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Konpromisoak: Gutxienez urtebetez egotea jarduera egiten.

14 urtetik beherakoen aita edo ama bada, edo premia bereziak dituzten eta/edo mendekoak diren pertsonak bere ardurapean dituenak:

• Aiaran erroldaturik egotea.

• Familiako kideen artean 14 urtetik beherakoak edo premia bereziak dituzten edo mendekoak diren pertsonak izatea.

• PFEZren 98. artikuluan zehaztutako familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

– Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5

– Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2

– Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5

– Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

• 2020ko martxoaren 14tik aurrera soldatarik gabeko baimen bat hartzea.

Alarma egoeraren deklarazioaren ondorioz enplegua galdu bada:

• Aiaran erroldaturik egotea

• PFEZren 98. artikuluan zehaztutako familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

– Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5

– Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2

– Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5

– Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

Bere ardurapean mendekotasun mailaren bat duen pertsona badu:

• Aiaran erroldaturik egotea

• Mendekotasunaren aitortpena.

• PFEZren 98. artikuluan zehaztutako familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

– Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5

– Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2

– Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5

– Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

Telelana gaitzeko edo ikasleentzako beharrezko material elektronikoa erosi bada:

- Aiaran erroldaturik egotea

- PFEZren 98. artikuluan zehaztutako familia unitateak ez ditu diru sarrera hauek baino handiagoak jaso behar:

– Familia unitatea bi kidekoa denean, LGS bider 1,5

– Familia unitatea hiru kidekoa denean, LGS bider 2

– Familia unitatea lau kidekoa denean, LGS bider 2,5

– Familia unitatea bost edo kide gehiagokoa denean, LGS bider 3

4. ARTIKULUA. AURREKONTU ZUZKIDURA.

Deialdiko laguntzen zenbatekoa guztira, gehienez, 40.000,00 euro da.

Aurrekontu kreditua 2019ko udal aurrekontu 2020ra luzatuko aurrekontu aplikazio hauei egozten zaie:

- 430.471000 "Enpresa txikientzako, mikroenpresentzako eta saltokientzako laguntzak COVID-19"

- 231.480000 "COVID-19ren eragina izan duten udalerriko familientzako laguntzak"

5. ARTIKULUA. ESKAERAK

5.1. Eskaerak eta aurkezteko epea.

Eskaerak deialdi honen I. eranskineko eskabide orrian egingo dira, eta udalaren sarrera erregistroan aurkeztuko dira, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideetako batean, 10 egun balioduneko epean, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera..

Udalaren Erregistroan ahalik eta jende gutxien egon dadin, gomendagarria da eskaer eta dirulaguntza eskatzen duen dokumentazioa telematikoki aurkeztea, eta posta elektronikoa ez da deialdian parte hartzeko bitarteko telematiko balagarria.

Aurreko paragrafoa ez zaie aplikatuko pertsona juridikoei eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan jasotako gainerakoei. Horietarako, nahitaez erabili behar da bide telematikoa (www.aiarakoudala.eus), eta ez dira onartuko erakunde eta pertsona juridiko horiek aurrez aurre egiten dituzten eskaerak.

5.2. Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira Udalaren webgunean (www.aiarakoudala.eus).

Eskaerak Aiarako udaletxean jaso eta aurkeztu ahal izango dira.

5.3 Aurkeztu beharreko agiriak:

Laguntza eskaera deialdi honen I. eranskinean aurkeztu behar da, eta horrekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Aiarako Udalak haren ordezkari administratibo eskudunari eska diezaion eskatzaileei dagozkien zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria (II. eranskina).

- Zinpeko aitortpena, adierazten duena onuradun izateko debekuetan ez dagoela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek ezartzen duenaren arabera. (III. eranskina).

Enpresa txikien eta mikroenpresen kasuan, gainera, honako hauek aurkeztuko dira:

- Enpresaren ordezkariaren ziurtagiria, enplegatuen guztizko kopurua eta eragiketa bolu-mena egiaztatzen dituen.
- Enpresaren eratze eskrituraren kopia, egoitza soziala Aiaran duela egiaztatzen duena.
- Lan kontratuaren edo kontratuen kopia.
- Sortzapenaren azken hilabeteko Gizarte Segurantzako kotizazio buletina (TC2)
- Enpresaren legezko ordezkariaren zinpeko aitortpena, zeinaren bidez egiaztatzen baitu pandemiaren ondorioz diru sarrerak ehuneko 70 baino gehiago murriztu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Autonomoak badira, gainera, honako hauek aurkeztuko dira:

- 2020ko martxoaren 14an eta egun horretatik aurrera Langile Autonomoen Araubide Be-rezian alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan dagokion epigrafean alta emanda egotearen ziur-tagiria edo, bestela, udalak ofizioz egiaztatuko du jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela.
- Zinpeko aitortpen baten bidez egiaztatzea pandemiaren ondorioz diru sarrerak ehuneko 70 baino gehiago murriztu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Saltokien jarduera norberaren edo errentan hartutako lokal batean egiten bada, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- proErrentamendu kontratua eta ordaindutako azken hilekoaren ordainagiria, errentan hartutako lokala bada.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan dagokion epigrafean alta emanda egotearen ziur-tagiria edo, bestela, udalak ofizioz egiaztatuko du jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela.
- Lokalaren titulartasuna egiaztatzen duen ziurtagiria edo jabetzaren eskrituraren kopia, edo, bestela, udalak ofizioz egiaztatuko du Katastroan lokalaren titulartasuna, lokala jabetzan izanez gero.
- Titularraren zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena pandemiaren ondorioz diru sarrerak ehuneko 70 baino gehiago murriztu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

14 urtetik beherakoen aita edo ama, edo premia bereziak dituzten eta/edo mendekoak diren pertsonak bere ardurapean dituen izanez gero, gainera, honakoak aurkeztuko dira:

- Familia liburuaren fotokopia
- Enpresak emandako ziurtagiria, 2020ko martxoaren 14tik aurrera soldatarik gabeko bai-mena eskatu duela egiaztatzen duena.
- Familia unitateak egindako azken errenta aitortpena eta, hori egiteko betebeharririk ez badu, 2019an jasotako diru sarrera guztien aitortpena eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez izanaren ziurtagiria, eskatzaileak sinatuta.
- Ofizioz egiaztatuko da familia unitateko kideen kopurua, Udalaren Biztanle Erroldaren bidez.

Alarma egoeraren deklarazioaren ondorioz enplegua galdu bada, gainera, honako hauek aurkeztu behar dira:

- Enpresak emandako ziurtagiria, 2020ko martxoaren 14tik aurrera lan kontratua suntsitu egin dela egiaztatzen duena.

- Familia unitateak egindako azken errenta aitortpena eta, hori egiteko betebeharririk ez badu, 2019an jasotako diru sarrera guztien aitortpena eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez izanaren ziurtagiria, eskatzaileak sinatuta.

- Ofizioz egiaztatuko da familia unitateko kideen kopurua, Udalaren Biztanle Erroldaren bidez.

Bere ardurapean mendekotasun mailaren bat duen pertsona izanez gero, gainera, honakoa aurkeztu behar dira:

- Familia unitateak egindako azken errenta aitortpena eta, hori egiteko betebeharririk ez badu, 2019an jasotako diru sarrera guztien aitortpena eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez izanaren ziurtagiria, eskatzaileak sinatuta.

- Mendekotasunaren egiazttagiria

- Ofizioz egiaztatuko da familia unitateko kideen kopurua, Udalaren Biztanle Erroldaren bidez, eta mendekotasuna duenarekin bizi izatea.

Material elektronikoa erosiz bada, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Erosketa faktura, 2020ko martxoaren 14tik 2020ko maiatzaren 31ra artekoa.

- Fakturak ordaindu izanaren frogagiriak.

- Enpresa kontratatzaileak faktura ordaindu ez izanaren ziurtagiria.

- Familia unitateak egindako azken errenta aitortpena eta, hori egiteko betebeharririk ez badu, 2019an jasotako diru sarrera guztien aitortpena eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez izanaren ziurtagiria, eskatzaileak sinatuta.

Eskaera zuzentzea

Eskatzaileak deialdiaren arauan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio falta dena gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkezteko, eta epea hori beste bost egunez luzatu ahal izango dela, eta, orobat, adieraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko duela.

6. ARTIKULUA. ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA, EBAZTEKO EPEA ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA.

Espedientea izapidetzeko organo eskuduna udalaren Idazkaritza-kontuhartzaitza izango da.

Instrukziorako eskumena duen organoak ofizioz egingo ditu ebazpen proposamena egiteko erabili behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, idazkari-kontuhartzaitzaileak ebazpen proposamen-txostena egingo du.

Ebazpen proposamen-txostena Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Kontuen Informazio Batzorde Bereziari eta Iraunkorrari aurkeztuko zaio, irizpena eman dezan.

Ebazpen organo eskuduna alkatea izango da.

Prozedura ebazteko eta haren berri emateko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunari ebazpenaren berri eman ez bazaie, dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsizat jotzeko legitimazioa izango dute interesdunek.

Deialdi honetan aipatzen den udal laguntzen lerroa bateragarria izango da beste edozein administraziok abian jar ditzakeen laguntzekin, baldin eta laguntza publiko gisa ez bada jasotzen

interesdunak COVID-19ren ondorioz jasandako kalteak baino kopuru handiagoa. Kasu horretan, eskuratutako soberakina itzuli beharko da, dirulaguntza publikoak arautzen dituen araudiaren arabera.

Emandako dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da. Transferentzia hori l. eranskinean jaso beharko da, onuradunak adierazitako kontu korrontean, dirulaguntzaren xedea behar bezala justifikatu ondoren.

7. ARTIKULUA. LAGUNTZEN BALORAZIOA ETA KUANTIFIKAZIOA.

Eskabideak baloratzeko eta horren kuantifikazioa egiteko, laguntza lerro bakoitzaren baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, eta zenbateko hauen arabera kuantifikatuko dira:

- Enpresa txikiak eta mikroenpresak.

Laguntzaren zenbatekoa: 200,00 euro 2020ko martxoaren 14an lanaldi osorako kontratu mugagabea duen pertsona bakoitzeko. Lanaldi partziala izanez gero, zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

- Autonomoak.

Laguntzaren zenbatekoa: 700,00 euro.

- Jendearentzat zabalik dauden saltoki edo establezimenduak badira.

Laguntzaren zenbatekoa errentan hartutako lokalerako: Hileko baten kuotaren zenbateko osoa, gehienez 600,00 euro.

Laguntzaren zenbatekoa norberaren lokalerako: 300,00 euro.

• 14 urtetik beherakoen aita edo ama bada, edo premia bereziak dituzten eta/edo mendekoak diren pertsonak bere ardurapean dituenak.

Laguntzaren zenbatekoa: 200,00 euro.

- Enplegua galtzea.

Laguntzaren zenbatekoa: 400,00 euro.

- Mendekotasun graduren bat duten pertsonak

Laguntzaren zenbatekoa: 200,00 euro.

- Material elektronikoa erostea

Laguntzaren zenbatekoa: Ordaindutako fakturen ehuneko 20, baldin eta ez badira 1.000 eurotik gorakoak.

Arespalditza, 2020ko maiatzaren 25a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

AIARAKO PERTSONA INDIBIDUALEI, FAMILIA-UNITATEEI, AUTONOMOEI, ENPRESA TXIKIEI ETA MIKRO-ENPRESEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN PREMIAZKO DEIALDIA, KORONABIRUSAREN (COVID-19) BILAKAERATIK ERATORRITAKO ONDORIO EKONOMIKOAK ARINTZEKO.

CONVOCATORIA URGENTE PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A PERSONAS INDIVIDUALES, UNIDADES FAMILIARES, AUTONOMOS, PEQUEÑAS EMPRESAS Y MICRO-EMPRESAS DEL MUNICIPIO DE AYALA, PARA PALIAR LAS CONSECUENCIAS ECONÓMICAS DERIVADAS DE LA EVOLUCIÓN DEL CORONAVIRUS (COVID-19)

I. ERANSKINA / ANEXO I

ESKABIDEA /

ESKATZAILEA / SOLICITANTE		
Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI	
Ondorengoa naizen aldetik / En calidad de:		
<input type="checkbox"/> Interesduna / Persona interesada.	Agiriaren zk. / N° documento	
<input type="checkbox"/> En representación de	(r) en ordezkaria.	
Helbidea / Domicilio	P. K. / C. P.	Herria / Localidad Probintzia / Provincia
E-posta / e-mail	Telefono zk. / N° Teléfono	Sakelakoaren zk. / N° móvil
HELBIDERATZEKO KONTUA / CUENTA DOMICILIACIÓN		
IBAN	ES	

ZIURTATZEN DUT DECLARO QUE
<input checked="" type="checkbox"/> Ez dut jaso laguntza publikoengatik COVID-19 delakoaren ondorioz jasandako kalteak baino gehiago. No he percibido en concepto de ayudas públicas una cantidad superior a los daños padecidos como consecuencia del COVID-19.
<input checked="" type="checkbox"/> Diru-laguntza honen oinarri arautzaileak ezagutzen ditut eta baimena ematen diot Aiarako Udalari 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean dagokion espedientearen emandako ebazpena izapidetu, ebatzi eta jakinarazteko. Conozco las bases reguladoras de esta subvención y autorizo al Ayuntamiento de Ayala pueda tramitar, resolver y notificar la resolución.....

Data / Fecha: _____

Sinadura Digitala (klik eranstea) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

AIARAKO PERTSONA INDIBIDUALEI, FAMILIA-UNITATEEI, AUTONOMOEI, ENPRESA TXIKIEI ETA MIKRO-ENPRESEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN PREMIAZKO DEIALDIA, KORONABIRUSAREN (COVID-19) BILAKAERATIK ERATORRITAKO ONDORIO EKONOMIKOAK ARINTZEKO.

Eskatutako laguntza-ildoa eta aurkeztutako dokumentazioa:

<input checked="" type="checkbox"/>	Enpresa txikiak eta mikro-enpresak:
<input type="checkbox"/>	Enpresaren ordezkariaren ziurtagiria, kontratatutako langile-kopuru totala eta eragiketen bolumena egiaztatzen dituena.
<input type="checkbox"/>	Enpresaren eratze-eskrituraren kopia, egoitza soziala Aiaran dagoela egiaztatzen duena.
<input type="checkbox"/>	Lan-kontratuaren edo -kontratuen kopia.
<input type="checkbox"/>	Gizarte Segurantzaren Kotizazio Buletina (TC2), azken hilabetekoa.
<input type="checkbox"/>	Enpresaren ordezkariaren zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena enpresaren diru-sarrerek % 70etik gorako beherakada izan dutela pandemiaren ondorioz, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.
<input checked="" type="checkbox"/>	Autonomoak:
<input type="checkbox"/>	LAAB araubidean izena emanda egotearen eta 2020ko martxoaren 14tik aurrera bertan jarraitzearen egiaztatzea.
<input type="checkbox"/>	Ekonomia-jardueren gaineko zergan izena emanda egotea, dagokion epigrafean edo
<input type="checkbox"/>	Udalak ofizioz egiaztatuko du ekonomia-jardueren gaineko zergan izena emanda dagoela.
<input type="checkbox"/>	Autonomoaren zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena haren diru-sarrerek % 70etik gorako beherakada izan dutela pandemiaren ondorioz, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.
<input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera lokal propioan edo errentan hartutakoan gauzatzen duten saltokiak:
<input type="checkbox"/>	Errentamendu-kontratua eta ordaindutako azken hilabetearen ordainagiria, errentan hartutako lokala bada.
<input type="checkbox"/>	Ekonomia-jardueren gaineko zergan izena emanda egotea, dagokion epigrafean edo
<input type="checkbox"/>	Udalak ofizioz egiaztatuko du ekonomia-jardueren gaineko zergan izena emanda dagoela.
<input type="checkbox"/>	Lokalaren titulartasunaren egiaztatzea edo jabetza-eskrituraren kopia edo
<input type="checkbox"/>	Udalak ofizioz egiaztatuko du katastroan lokalaren titulartasuna.
<input type="checkbox"/>	Titularraren zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena haren diru-sarrerek % 70etik gorako beherakada izan dutela pandemiaren ondorioz, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ La Iglesia auzoa, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

<input checked="" type="checkbox"/>	14 urtetik beherako enpresak edo behar bereziak eta/edo mendekotasuna dituzten pertsonak ardurapean dituztenak:
<input type="checkbox"/>	Familia-liburuaren fotokopia.
<input type="checkbox"/>	Enpresak igorritako ziurtagiria, soldatarik gabeko baimenaren eskaera egiaztatzen duena, 2020ko martxoaren 14tik aurrera.
<input type="checkbox"/>	Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena, eta, hura egiteko betebeharra eduki ezean, aitortzea aurkeztu ez izanaren ziurtagiria eta eskatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, 2019an jasotako diru-sarrera guztiena.
<input type="checkbox"/>	Ofizios egiaztatuko da familia-unitateko kide-kopurua, herritarren udal-eroldaren arabera.
<input checked="" type="checkbox"/>	Alarma-egoeraren ondorioz enplegua galdu dutenak:
<input type="checkbox"/>	Enpresak igorritako ziurtagiria, 2020ko martxoaren 14tik aurrera lan-kontratua iraungitzea.
<input type="checkbox"/>	Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena, eta, hura egiteko betebeharra eduki ezean, aitortzea aurkeztu ez izanaren ziurtagiria eta eskatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, 2019an jasotako diru-sarrera guztiena.
<input type="checkbox"/>	Ofizios egiaztatuko da familia-unitateko kide-kopurua, herritarren udal-eroldaren arabera.
<input checked="" type="checkbox"/>	Mendekotasun-gradua duten pertsonak ardurapean izatearen kasuan:
<input type="checkbox"/>	Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena, eta, hura egiteko betebeharra eduki ezean, aitortzea aurkeztu ez izanaren ziurtagiria eta eskatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, 2019an jasotako diru-sarrera guztiena.
<input type="checkbox"/>	Mendekotasun-ziurtagiria.
<input type="checkbox"/>	Ofizios egiaztatuko da familia-unitateko kide-kopurua, herritarren udal-eroldaren arabera, baita mendekotasuna duen pertsonarekiko elkarbizitza ere.
<input checked="" type="checkbox"/>	Material elektronikoa erostea:
<input type="checkbox"/>	2020/03/14 eta 2020/05/31 arteko erosketa-faktura.
<input type="checkbox"/>	Fakturaren ordainagiria.
<input type="checkbox"/>	Enpresa kontratatzaileak faktura ordaindu ez duela dioen ziurtagiria.
<input type="checkbox"/>	Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena, eta, hura egiteko betebeharra eduki ezean, aitortzea aurkeztu ez izanaren ziurtagiria eta eskatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, 2019an jasotako diru-sarrera guztiena.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ La Iglesia auzoa, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala


CONVOCATORIA URGENTE PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A PERSONAS INDIVIDUALES, UNIDADES FAMILIARES, AUTÓNOMOS Y AUTÓNOMAS, PEQUEÑAS EMPRESAS Y MICRO-EMPRESAS DEL MUNICIPIO DE AYALA, PARA PALIAR LAS CONSECUENCIAS ECONÓMICAS DERIVADAS DE LA EVOLUCIÓN DEL CORONAVIRUS (COVID-19).

Línea de ayuda que solicito y documentación que se presenta:

<input checked="" type="checkbox"/>	Pequeñas empresas y micro-empresas:
<input type="checkbox"/>	Certificación de representante de la empresa acreditativo del número total de personal empleado y del volumen de operaciones.
<input type="checkbox"/>	Copia de la escritura de constitución de la empresa, acreditativa del domicilio social en Ayala.
<input type="checkbox"/>	Copia del contrato o contratos de trabajo.
<input type="checkbox"/>	Boletín de Cotización a la Seguridad Social (TC2) del último mes devengado.
<input type="checkbox"/>	Declaración jurada de representante de la empresa acreditativo de haber sufrido una merma de sus ingresos, como consecuencia de la pandemia, superiores al 70%, respecto al último trimestre del año 2019.
<input checked="" type="checkbox"/>	Autónomo/Autónoma:
<input type="checkbox"/>	Certificado acreditativo de estar de alta en dicho régimen y continuar tras el 14 de marzo de 2020, en el R.E.T.A..
<input type="checkbox"/>	Certificado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente.
	o
<input type="checkbox"/>	El Ayuntamiento comprobará de oficio el alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas.
<input type="checkbox"/>	Declaración jurada acreditativa de haber sufrido una merma de sus ingresos, como consecuencia de la pandemia, superiores al 70% respecto al último trimestre del año 2019.
<input checked="" type="checkbox"/>	Comercios que ejercen su actividad en local propio o arrendado:
<input type="checkbox"/>	Contrato de arrendamiento y justificante de pago de la última mensualidad abonada, si se trata de local arrendado.
<input type="checkbox"/>	Certificado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente
	o
<input type="checkbox"/>	El Ayuntamiento comprobará de oficio el alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas.
<input type="checkbox"/>	Certificado acreditativo de la titularidad del local o copia de escritura de la propiedad.
	o
<input type="checkbox"/>	El Ayuntamiento comprobará de oficio la titularidad del local en el Catastro.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ BºLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

<input type="checkbox"/>	Declaración jurada de titular acreditativa de haber sufrido una merma de sus ingresos, como consecuencia de la pandemia, superiores al 70% respecto al último trimestre del año 2019.
<input checked="" type="checkbox"/>	Progenitor o progenitora de menores de 14 años, o tener a su cargo personas que tengan necesidades especiales y/o sean dependientes:
<input type="checkbox"/>	Fotocopia del libro de familia
<input type="checkbox"/>	Certificado expedido por la empresa acreditativo de la solicitud de permiso sin sueldo a partir del 14 de marzo de 2020.
<input type="checkbox"/>	Ultima declaración de la renta realizada por la unidad familiar y, en el caso de no tener obligación de realizarla, certificado de no haber presentado la declaración y declaración responsable suscrita por la persona solicitante de todos los ingresos percibidos en el año 2019.
<input type="checkbox"/>	Se comprobará de oficio el número de miembros de la unidad familiar según el Padrón Municipal de Habitantes.
<input checked="" type="checkbox"/>	Pérdida de empleo como consecuencia de la declaración de estado de alarma:
<input type="checkbox"/>	Certificado expedido por la empresa de extinción del contrato de trabajo a partir del 14 de marzo de 2020.
<input type="checkbox"/>	Ultima declaración de la renta realizada por la unidad familiar y, en el caso de no tener obligación de realizarla, certificado de no haber presentado la declaración y declaración responsable suscrita por la persona solicitante de todos los ingresos percibidos en el año 2019.
<input type="checkbox"/>	Se comprobará de oficio el número de miembros de la unidad familiar según el Padrón Municipal de Habitantes.
<input checked="" type="checkbox"/>	En caso de tener a cargo persona con grado de dependencia:
<input type="checkbox"/>	Ultima declaración de la renta realizada por la unidad familiar y, en el caso de no tener obligación de realizarla, certificado de no haber presentado la declaración y declaración responsable suscrita por la persona solicitante de todos los ingresos percibidos en el año 2019.
<input type="checkbox"/>	Certificado de dependencia.
<input type="checkbox"/>	Se comprobará de oficio el número de miembros de la unidad familiar según el Padrón Municipal de Habitantes y la convivencia con la persona dependiente.
<input checked="" type="checkbox"/>	Compra de material electrónico:
<input type="checkbox"/>	Factura de compra de fecha comprendida entre el 14/03/2020 y 31/05/2020.
<input type="checkbox"/>	Justificante de pago de la factura.
<input type="checkbox"/>	Certificado de que no ha sido abonada la factura por la empresa contratante.
<input type="checkbox"/>	Ultima declaración de la renta realizada por la unidad familiar y, en el caso de no tener obligación de realizarla, certificado de no haber presentado la declaración y declaración responsable suscrita por la persona solicitante de todos los ingresos percibidos en el año 2019.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ BºLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

AIARAKO PERTSONA INDIBIDUALEI, FAMILIA-UNITATEEI, AUTONOMOEI, ENPRESA TXIKIEI ETA MIKRO-ENPRESEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN PREMIAZKO DEIALDIA, KORONABIRUSAREN (COVID-19) BILAKAERATIK ERATORRITAKO ONDORIO EKONOMIKOAK ARINTZEKO.

CONVOCATORIA URGENTE PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A PERSONAS INDIVIDUALES, UNIDADES FAMILIARES, AUTONOMOS, PEQUEÑAS EMPRESAS Y MICRO-EMPRESAS DEL MUNICIPIO DE AYALA, PARA PALIAR LAS CONSECUENCIAS ECONÓMICAS DERIVADAS DE LA EVOLUCIÓN DEL CORONAVIRUS (COVID-19)

II. ERANSKINA / ANEXO II



ESKATZAILEA / SOLICITANTE			
Izena eta abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI	
<input type="text"/>		<input type="text"/>	
Helbidea / Domicilio	P. K. / C. P.	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta / e-mail	Telefono zk. / N° Teléfono	Sakelakoaren zk. / N° móvil	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	

BAIMENA EMATEN DIOT:

AIARAKO UDALARI, nire izenean, eska dezan administrazio eskudunak emandako agiria, Foru Aldundiaren zergak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duena.

AUTORIZO:

AL AYUNTAMIENTO DE AYALA a que solicite, en mi nombre, certificado de la Administración competente acreditativo de estar al corriente del pago de los impuestos con la Hacienda Foral y de los pagos con la Tesorería General de la Seguridad Social.

Data / Fecha:



Sinadura Digitala (klik eranste) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F
✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

AIARAKO PERTSONA INDIBIDUALEI, FAMILIA-UNITATEEI, AUTONOMOEI, ENPRESA TXIKIEI ETA MIKRO-ENPRESEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN PREMIAZKO DEIALDIA, KORONABIRUSAREN (COVID-19) BILAKAERATIK ERATORRITAKO ONDORIO EKONOMIKOAK ARINTZEKO.

CONVOCATORIA URGENTE PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A PERSONAS INDIVIDUALES, UNIDADES FAMILIARES, AUTONOMOS, PEQUEÑAS EMPRESAS Y MICRO-EMPRESAS DEL MUNICIPIO DE AYALA, PARA PALIAR LAS CONSECUENCIAS ECONÓMICAS DERIVADAS DE LA EVOLUCIÓN DEL CORONAVIRUS (COVID-19)

III. ERANSKINA / ANEXO III

D./D^a.

jaunak/andreak nire erantzukizunaren pean **ADIERAZTEN DUT** ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onura - dun izateko debekuen eraginpean. / DECLARO, bajo mi responsabilidad que no estoy incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario de una subvención pública, recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.



Data / Fecha:

Sinadura Digitala (klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F
✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus